

Itsas bazterrean

Itsas bazterrean bizitzea, beste edozein tokitako herri edota hiritan bizitzea bezala da. Baina, badu aukera paregabea: itsasoak eskaintzen dituen bitartekoez gozatzea.

Aspalditik, arrantza gizaki askoren lanbidea da. Gaur egun, oraindik, artesau-lana da zenbait tokitan (arrantzaleak katik abiatzen dira, beren ontzietan ordu batzuetan edota egun batzuetan aritzeko). Arrantza industrialia, nahiz eta Euskal Herrian ezaguna izan, ez dago oso zabaldua (ontzi-lantegi handietan, arrantzaleak oso urrutira joaten dira aste askotarako).

Itsasertzean, arrainak, txirlak, otarrainak... ere hazten dira: arrain-hazkuntza da.



Itsas bazter zenbaitetan portu handiak ere ikus daitezke (Bilbokoa, adibidez). Hauetan, petroliontzia eta karga-ontziak dira ugariak. Hainbat enpresak petrolioa bilatzen du itsasoan... eta, jakina!, ekintza hauek itsasoa kutsatu egiten dute.

Itsasoaren ondoan bizitzeak beste abantaila bat ere badu: barrualdeko klima baino gozoagoaz ballatzea. Udan, itsasoak turista franko erakartzen du. Hauek hartzeko, hotelak, jatetxeak, apartamentuak, dendak... eraiki dira. Baina, urteko beste sasoietan, hondartzak hutsik egoten dira eta udaldiko negozioek ez dute irabazi handirik.

Arrantza portua

Hemen arrantzaleak errekinaz hornitzen dira: ontziak konpontzen dituzte eta arraina salda. Azkar banatuko dute gero arrain hori herri eta herrietan.

Kirol portua

Hemen bela-ontziak eta hestelako kirol-ontziak gordetzen dira, bakontzari dagokionez lekuan.

